

DIRU ITURRIAK



Atal honetan, lehenik eta behin, gure diru-sarrerak nola lortuko ditugun ikusiko dugu, hau da, nola eta non hasiko gara salmentak egiten, eta nola lortuko ditugun irabaziak.

Beste aldetik, gure produktua alokatzeko aukera emango dugu, hau da, gure produktua diru kantitate baten truke utziko diegu erosleei, adostutako datan entregatu beharra dute eta egoera onean.

Azkenik gure produktuaren lizentziak saltzea gustatuko litzaiguke Amazon edo El Corte Ingles bezalako enpresei, ere zeliakoen fundazio eta jatetxe batzuekin kontaktuan jarri nahiko genuke.

Honen bidez, espantsionismoa da lortu nahi duguna, aukera komertzial batzuen bidez, merkatuan ezagunak egiteko eta gehiago saltzeko.

Gure diru-sarreraren hurbilketa bat honako hau izango zen:

- Produktuaren salmenta: 4,99€/Ud. Hasteko prezio merke batean jartzea erabaki dugu, produktuaren kalitatea mantenduz, horrela hasieran salmentak ondo hasi egingo dira, gero negozioa aurrera doanean prezioa igo egingo dugu.
- Produktuaren alokairua: 0,99€ egun bakoitzeko, egunaren bukaeran gure termometroa ezingo da berriz erabili
- Lizentziaren salmenta: 200€ lizentziarengatik eta etorkizuneko salmentaren %15